

gogoetaldi trankil batean zertzen da.

Yourcenarrek 1929an publikatu zuen lehen eleberria, *Alexis eta alferrikako guduari buruzkoa*. Despedida-eskutitz luze eta mamitsu bat da, non senarrak emazteari konfesatzen dion homosexuala dela, eta ez duela sekula maite izan. Eleberriak sentimenduoi buruzko gogoeta sakon, xehe, sotil batean egiten du aurrera, protagonistaren oroitzenaren barrena. Gizonak aitortzen du alferrikako gudu batean eman duela bizialdia, bere burua eta desira borrokatzen eta

**Enbor bereko ezpal ditu Mishimak edertasuna, erotika eta heriotza, eta bortizki txikirikordatzen zaizkio literaturan**

**Yourcenarrek ententitu zuen Mishima, harentzat ere gai funtsezkoa baitzen (norberaren) heriotza**

ukatzen, harik eta emazteari gutuna idazten dion arte: «Arranguratu nintzen ez sarriegi amore eman izanaz, ezpada luze-egi eta gogorregi gudukatu izanaz».

Mishimak hogeitau geroago kaleratu zuen *Maskara baten aitortpenak*: protagonistaren haurtzarora du hizpide, eta batik bat bere sexu-desiraren eta edertasun-obsesioen sorreraz dihardu. Homosexualitate gatazkatsua baten piztuera kontatzen du, grina bizi baten forman, eta gudua ez baizik maskara darabil metafora gisa; ez bakarrik haren atzean ezkutatzeko bere benetako irritsa eta izaera, baizik baita fikzioaren eta autobiografiaren arteko arakala fina irudikatuz ere. Mishima gazteak maskara bikoitz horretatik aitortzen du bere arima hilduratuaren mina, «min bat hain sakona, esplikaezina eta nire fikzioen maskaratik apartekoa».

Heriotza eta homosexualitate jazarria. Ez da, ez, kasualitatea izango bidazoleok gai horietan batzea, diferente bada ere; Mishimak bere maskararen bidez lortu zuen barren-barrenetik eskribitzea, eta Yourcenarrek, haren aldean, oso apartetik idazten zuen. Beharbada beste borroka batzuk ere izango zituelako. Izan ere, seguru Mishimari inork ez ziola esan idazle «maskulinoa» zela, eta ez zutela hori esanez *miretsi* Frantses Akademiaren onartu zutenean, «gizon batek bezala» idazten zuela eta.

## Ilunetan haztaka

Irati Majuelo

**B**las de Otero-Bilbo Uriá lehiaketan 2019an saritu eta udahonen hasieran argitaratutako poesia bilduma da *Zaharkitze programatua*; bide batez, Eva Perez-Pons gaztearen lehen literatur lana ere bada.

Bost ataletan antolatua dago *–Deklarazio anonimoa, Erradikal askeak, Zulo beltzak eta zienagak, Atomoen dardarak, Formula enpirikoa–*, eta idazleak bere buruarekin izandako elkarriketa intimoa dakarkigu paperera. Barrura begirako idazketa horretan aurkezten dizkigu zaurgarritasunaren ertzak: bakardadea, noraezaren mina, sistemen biolentzia, eta, batez ere, nork bere usteekiko kontraesanak. horrez gain, poema sorta ilun eta introspektibo batean, sexuak, aldarrikapenak eta borrokak badute euren lekua.

Hasieratik igar daiteke idazlearen barne bilaketa baten emaitza dela bilduma hau, idazleak bere bizi-esperientziaren une jakin batean izandako zalantza, gatazka eta ezinegonei galderak jarri eta erantzunak bilatzeko egindako bidaia. Era berean, idazketa propioaren bilaketa hasi berriroz hartu behar dira poemok, hau da, diskurtsiboek etorkizunerako akuilu interesgarriak jarri dituz-



**‘Zaharkitze programatua’**

**Egilea:** Eva Perez-Pons.  
**Argitaletxea:** Erein.

## Zaharrak berritzen

**HAUR ETA GAZTE LITERATURA**

Imanol Mercero

**H**aurrak adinean aurrera egin ahala emozio berriak agertzen dira kontakizunen erreperitorioan. Hasierako kantak barregarriak diren kontuekin tartekatzen dira, eta azken horiek garapen handiagoa duten beldur atabikoen ipuinen zubi dira, hala nola hiru txerrikumeena, edota zazpi antxumeena. Lehen garai horietan, haurrak ez du irakurtzen, emozioen bidez kudeatzen ditu bizipenak, eta errealitatearen eta fikzioaren bidez lortu dituztenez ez daki bereizten.

Hortik gutxira, ordea, haurrak jautzia egiten du. Irakurketarako prest dagoela adierazten artetan zantzuak erakusten hasten da, eta era desberdinean bizitzen du fikzioa, errealitate berritzen ikasi duelako dagoeneko. Garai honetan kokatzen da, besteak beste, eskuartearen dugun *Bisitari bitxia*, zeinak izuaren bidezko

umorea bilatzen duen, agertoki, zein gidoi ezin aproposagoekin.

Tamaina handiko album ilustratu guztiak bezala, irudien indarra baliatzen du aspaldiko ipuin zahar gaurkotu honek. Barre urduria, izua... sentitzen direnean gozamina izaten da. Are handiagoa gozamina taldean, ahoz-gora irakurritia.



**‘Bisitari bitxia’**

**Idazlea:** Gracia Iglesias.  
**Ilustratzailea:** Vicente Cruz.  
**Itzultzailea:** Aitor Arana.  
**Argitaletxea:** Mezulari.

ten arren, garatzeke eta fintzeke sumatzen baita oraindik poeta-aren estiloa. Zail da idazteko manera lehen liburuan definitzen, eta, ondorioz, kontrastea nabari da zenbaitetan prosatik oso gertu geratzen diren poema-lerroen eta erritmoa guztiz moztzen dutenen artean. Hala ere, bereziki nabarmentzen da gramatikaren haustura kontziente eta ez-kontzientek irakurketa zailtzen dutela.

Mundu honetan bizitzeko, erlaxionatzeko, sentitzeko dagoen zurruntasun gero eta handiagori zuzentzen zaio Perez-Ponsen ahotsa, eta, horretarako, ongi ezagutzen dituen abiapuntu teorikoetatik (feminismoa, prozedura zientifikoak) munduarekiko esperientzia indibiduala adierazten ahalegintzen da. Teoria bi ahoko labana bilakatzen zaio, ordea, testuak sarri irakurlearengana iristeko oztopoak baititu. Ilunetan haztaka ibiltzearen sentsazioa eman dezakete poemek; mundu honek eragiten duen noraeza transmititzen da, baina ilunpetan ibiltzeko idazleak teoria –eta zenbaitetan gorputza– helduleku bakartzat hartu duela

igartzen da. Segurtasuna eman dezakeen oinarria den arren, zurruntasuna ere ekar dezake berekin, eta irakurleari helduleku horiek baino ez iritsi, itzaletan geratu den mundu aberats hori ezagutu ezinik. Horaz, esan daiteke bilduma honetan bizi-esperientziaren detaileak falta direla, hitz handiez gaindiko kode konpartituak, orokortasunetik aldentu eta irakurlearekin konektatzen lagunduko duten inpresio, azalera, usain sentikorrek. Mina esplikatu baino gehiago, min hori zertan den sentiaraziko duten poemak.

Hauskortasuna bere baitan arakatzeko duen Perez-Ponsen, eta, horregatik, gorputza eta sexua hizketagai dituen leuntzen da aurretik aipaturiko sentsazio hori. Gorputz deseriosoak dira liburukoak, normari jarraitu nahi ez diotenak, subertsiorako espazio bilakatu nahi dutenak: «Bai. Badakit ez naizela / beharko nintzena. / (...) odolak kontrako noranzkoan zirkulatzen didala». Gorputzean eta aldarrikapenean aurki daitezke, beraz, liburu honen indargunea.

## Dibertigarria eta surrealista

**HAUR ETA GAZTE LITERATURA**

I. Mercero

**K**omikiak ez dira guztiak berdinak. Istorioren luzeraren arabera, emaitza oso desberdinak lortzen dira.

Uxio komikigintza laburraren ildokoa da. Istori guztiak bi orrialdekoak dira, di-da hasi eta bukatzen diren horietakoak. Formatu arinak –bistan da-, ahalbidetzen du umore kolpe eraginkorak eskaintzea, irakurleari asperdura edota luzetsia piztu aurretik.

Uxioren album hau pertsonaiaren aurkezpena egiteko baliatzen da. Uxio nor den, bere lagun onenak nortzuk diren, zer zaletasun dituen. Horretarako, eguneroko bizitzan aurkezten zaigu pertsonaia; abentura bakoitzeko bizipen bat hasi eta bukatzen da; egoera domestiko ba-

ten aurkezpena izaten du, ezohiko bideetatik garatzen den korapiloa segidan, eta erresoluzio umoretsua eskaini ohi zaigu amaieran.

Nabarmentzeko da komikigintzen baliabide formalekin esperimentatzeko erakusten duen abildadea. Modu desberdin ugaritan erabiltzen dira binetak, esaterako, gidoiaren lagungarri, egilearen birtuosismoa alferrik galdu gabe; azken emaitzari mesede baino ez dio egiten horrek.



**‘Uxio’**

**Idazle eta ilustratzailea:** Martin Romero.  
**Itzultzailea:** Bego Montorio.  
**Argitaletxea:** Astiberri.